

Ahalduntze prozesuetan bidelagun

MAITE BLANCO, ANE ITURBE ETA KISTIÑE LUJANBIO





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Arrate Iturbe **3**

Elkarriketa Estitxu Sudupe,
Tolosako perla beltzaren zaindaria **4-7**

Asteko Gaia Andragora, emakumeen
autokonfiantza handitzeko **10-17**

Zientziaren Talaia J. Lopez-Gazpio **18-19**

Iritzia Koldo Aldabe **21**

Bertsoa Beñat Iguaran **22**

Begirada Grafikoa Jennifer Arevalo **23**

Erreportajea Esne-berriketa
entzuteko parada **30-33**



4-7



18-19



Azaleko irudia:
Imanol Garcia Landa

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95

KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Eider Aierbe Isasti

WEBGUNEA: Ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 687 410 033 • 107.6 FM

PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 • atarikide@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiaz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Aldapan gora, aldapan behera; maitasuna bide



ARRATE ITURBE
ARNASTEN IKASTEN

Bizitza ez da beti laua edo nahiko genukeen bezain xamurra. Batzuetan, bidezidor horretan gora-beherak aurkitzen dira, harri koxkorak, bidea uste baino luzeagoa eta bihurtuak ere izaten da hainbatean; errotonda forma ere izaten du aldian behin, eta bertan bira eta bira ibiltzea zilegi da.

Badago aldea bakarrik edo konpainian egitean; ez da hobia ezta txarragoa ere. Nire ustez, aldiro bidearen zati bat bakarrik egitea ez da txarra. Egia da halere, xamurragoa izaten dela eskutik lagunartean egitea. Ez da erraza ordea; izan ere, gizarte efimero honetan, pertsonen alde egiten dute edo desagertu egiten dira gure ingurutik, isil eta azalpenik eman gabe. Harremanak sekula ez dira izaten egonkorak, estatikoak, estankoak, betirakoak. Hala eta guztiz ere, bide osoan badaude bereziak diren pertsonak, beti hor daudenak, eta zorionez, bihotzak aginduta badakigu nortzuk diren.

Gaurko eguna, azaroaren 21a, egun berezia da. Eguna bera efemeridez josita dago. Esaterako, asmakizunek bidea eraldatu zuten 1877ko egun hartan, fonografoa aurkeztu baitzuen Thomas Edisons; soinua grabatzeko eta berriz erreproduitzeko makina asmatu zuen italiarrak. Horrek esan nahi du garai batean teknologiak eta berrikuntzak gizakiaren ahotza —eta beraz, bere istorioa— gordetzeko bide berriak sortu zituztela. Baina sinbolikoki esan nahi du gure ekintzek, guk gehien maite ditugun soinuek, kanpora askatzeko bidea izan badutela. Egundorretan ere herriak markatu zituzten gatazken pasarteak badira. Adibidez, *Bloody Sunday* Irlandan: IRAren eta britaniar tropen arteko gatazka latza. Horrek guztiak gogorarazten digu

bizitza ez dela beti egonkorra, ezta gure esku egina ere, bidean aldapak eta gorabeherak izan daitezke, ustekabeen.

Eta, hala ere, bada egun honek niretzat duen efemeriderik garrantzitsuena: nire amaren 80. urtebetetzea, Segurako Errotan jaiotako alaba zaharrena.

Zorioneko muga da, ez soilik zenbakiz, baita esanahiz ere. 80 urte ez dira urte hutsak: bizitako hamarkada bakoitza bide-zati oso bat da, oroitzenak, borroak, garaipenak eta isilpeko jakituria metatzen baititu. Etxean ama zutabeetako bat izan da, eta oraindik bada: etxeko lehen konfidentea, lehen babeslekua, eta neurri handi batean, gure bizitzaren norabidearen mentore. Ez da beti ozen agertzen, ezta beti ikusgarria ere, baina hor dago beti —eguneroko keinuetan, hurbiltasunean, eta «hemen nago» xehe baina sakon horretan—.

«Zorioneko muga da, ez soilik zenbakiz, baita esanahiz ere. 80 urte ez dira urte hutsak: bizitako hamarkada bakoitza bide-zati oso bat da, oroitzenak, borroak, garaipenak eta isilpeko jakituria metatzen baititu»

Ama bezalako pertsonen erakusten dute bidean garrantzitsuena ez dela zenbat jende ezagutzen duzun, baizik eta benetan nork eusten dizun. Horregatik, gaurko egunean, efemerideen artean eta historiaren orrialdeen artean, bada omenaldi berezi bat merezi duena: Zorionak Ama! Maite zaitugu!



ESTITXU SUDUPE

TOLOSAKO
BABARRUNA
ELKARTEKO
LEHENDAKARIA

«Munduan ez dago halako babarrunik»

Bihar ospatuko da Tolosan Babarrunaren Festa. Azken asteotan, maiatza amaieran ereindako hazien fruituak biltzen aritu dira Tolosako Babarruna Elkarteko ekoizleak. Lan handia izaten ari dira asteotan, eta beste behin ere, ekoizle gazteen beharra dutela nabarmendu du lehendakariak.

Josu Artutxa Dorronsoro

Donostiako Kursaaen egiten diren kongresuetako operazio burua da Estitxu Sudupe (Urretxu, 1974). Horrez gain, Tolosako Babarruna Elkarteko lehendakaria da, 2022az geroztik. 2017an egin zen bazkide; betidanik gustatu izan zaio baratzean aritzea, eta lehen sektorea babestu nahi zuen. Urtero, Tolosako San Esteban auzoko Gorregi base-rrian alokatuta dituen lursailetan ereiten ditu perla beltzaren haziak. Aurtengo babarruna «kalitate handikoa» dela esan du.

Aurten uzta ez da atzeratu, ezta?

Duela bi urte ohi baino beranduago hasi ginen uzta biltzen, nahiz eta Babarrunaren Festa ohiko datan egin ahal izan genuen. Iaz, uzta atzeratu egin zen, eta horrek azaroan egin ohi den ospakizuna abenduan egitea eragin zuen. Aurten, berriz, aurreikusi baino astebete beranduago egingo da Babarrunaren Festa, baina babarrunak izango ditugu ordurako. Bilketan aritu gara azken asteotan.

Nolakoa izan da aurtengo ekoizpen-prozesua?

Guztiok erein ditugu ohi baino beranduago babarrunak. Udaberria oso euritsua izan zen, eta itxaron egin behar izan genuen lurra goldatu behar izateko. Maiatza erdialdera erein ordeztu, ekaineko lehen egunetan erein genituen. Horrek apur bat atzeratu zuen prozesua.

Azken asteetan uzta biltzen aritu zarete. Nolakoa da aurten Tolosako Babarruna?

Itxura oso ona dauka. Hazia ona denean, eta ondo zaindu edo mimatzen duzunean, beti izaten da

ona. Toki batzuetan beste batzuetan baino gutxiago jaso da. Izan ere, ekaina erdialdean eurite eta luizi indartsuak izan ziren eskualdean, eta kalteak eragin zituzten zenbait baratzetan. Kantitateari dagokionez, gutxiago izango ditugu, baina kalitatean ez du eraginik izan.

Zeintzuk izaten dira babarrunak ekoizteko eman beharreko urratsak?

Lurra goldatu ondoren, plastikoa jartzen dugu, zuloak egiten ditugu eta haziak ereiten ditugu. Lurra ongarritu ere egiten dugu, nahiz eta batzuetan ez den beharrezkoa izaten, urtez urte, babarruna soilik ereinda, landarearen errizomak nitrogenoa sortzen duelako eta lurrian uzteko gai delako. Behin hazia ereinda, hagaxkak jartzen ditugu, bi metro eta erdiko edo hiru metroko distantziara, eta ondoren, hagaxken artean sarea jartzen dugu. Azken honek, babarrunaren landarea kiribiltzen laguntzen du. Aske geratzen dira landarearen fruituak, eta haize gehiago pasatzen denez, gaitasunak izateko arriskua oso txikia da.

Lan horiek egin ondoren, uda guztian zehar landareak zaintzen ditugu; gaitzik edo zomorrerik sartu ote zaien gainbegiratzen dugu. Dena ondo

«Akaso nirea ez da askok lan honetan aritzeko buruan duten profila, baina oso gustuko dut estereotipoak haustea»

bidean, udazkenean sartzean sastrakaz garbitzen ditugu landareak. Eta azkenik, urrian eta azaroan babarrunak biltzen ditugu.

Landareak ez dira ureztatu behar?

Berez, ez. Baina, azken urteetan, udan bero handiak egin izan dituenean, ureztatu behar izan ditugu.

Bero sapek eta euriteek ez dute laguntzen, ezta?

Ez. Azken urteetan ikaragarri ari gara nabaritzen klima aldaketaren eragina. Bizpahiru egunetan bero zakarra izaten denean, 37-40 gradu inguruko tenperaturekin, lorea lehorte eta erori egiten da. Landareak, bizirauteko, berriro sortzen du lorea. Ondorioz, bizirik gelditzen diren loreak urrian biltzeko moduan egoten gara, baina lore berrien kasuan azarora arte itxaron behar izaten dugu. Uzta guztia aldi berean biltzea litzateke egokiena.

Behin uzta bilduta, elkartearen lantegira eramaten dituzue babarrunak, bertan poltsatan sartzeko.

Ekoizle guztien babarrun zakuak eramaten ditugu hara. Hango langileek babarrunak aletu eta galga batean jartzen dituzte; tamaina txikikoak erori egiten dira, eta soilik tamaina txukuna dutenak igarotzen dira galgatik. Ondoren, zinta batera joaten dira babarrunak, eta zatarrak, puskatutakoak eta ondo lehortuta ez daudenak kentzen dituzte. Kalitate gorenekoak bakarrik aukeratzen dituzte. Jarraian, bi egunez izozten dira babarrunak, zorroak haztea ekiditeko. Azkenik, merkaturatu aurretik, poltsatan sartzen dituzte.

Udazkeneko hilabeteak lan karga handikoak izaten dira, beraz?

Bai. Batez ere urria eta azaroa, eta urtearen arabera, abendua ere bai. Abenduan ere nahiko lan izaten dugu. Urtean zehar kudeatzaile bat egoten da elkartean lanean, baina hila-bete hauetarako langile gehiago behar izaten ditugu.

2017an sartu zinen elkartean. Nolatan animatu zinen?

Galdera ona. Izan ere, nire ogibi-deak ez dauka zerikusirik lehen

sektorearekin, baina betidanik gustatu zait baratzean aritzea. Ama izan nintzenean, ordea, barazki propioak ekoizteko grina areagotu zitzaidan. Horregatik, nekazaritza ekologikoari buruzko zenbait ikastaro egin nituen Fraisoro Eskolan. Han esan zidaten babarrun elkartea bazkide bila zebilela, eta animatu egin nintzen. Elkarteko kide izateko gutxienez 1.000 metro koadro erein behar dituzu — haziak elkartean ematen dizkie ekoizleei —, eta ondoren, ekoiztatukoak elkartera eraman behar duzu.

2017an Urretxun hasi nintzen babarrunak ereiten, eta 2018an eta 2019an Urretxun eta Tolosan ereiten nituen. 2020az geroztik, Tolosan bakarrik ereiten ditut. Urretxuko baratzea beste barazki batzuk ereiteko erabiltzen dut orain. Tolosan, San Esteban auzoko Gorregi baserrian sortu zitzaidan aukera. Lursailak prest zeuzkatela esan zidaten, eta alokatu egin nizkien. Gaur egun hemen bakarrik landatzen ditut babarrunak, eta oso pozik nago.

Zer oroitzapen duzu elkartean egindako lehen urteez? Urduri sentitu zinen?

Asko gustatzen zait espero ez zaituzten toki batean egotea, eta hori gertatu zitzaidan. Akaso nire ez da askok lan honetan aritzeko buruan duten profila, baina oso gustuko dut estereotipoak haustea. Hala ere, ez nintzen horregatik sartu elkartean. Baratzegintza asko gustatu izan zait betidanik.

Hasieran zalantza asko nituen, eta beti ari nintzen galderak egiten. Laguntza ikaragarria jaso nuen bueltan. Lehen egunetik besoak zabalik hartu ninduten bazkide guztiek. Horri esker, ez nuen urduritasunik izan. Aurreneko asteetan harrituta begiratzen ninduten askok, baina berehala sentitu nintzen taldearen parte.

2022az geroztik elkarteko lehendakaria zara.

Zer suposatzen du horrek?

Praktikan teorian baino karga arinagoa du lehendakari izateak. Lana, berez, ez da astuna. Postuaren izenak pisu handiagoa du elkartean izaten dudana baino, eta gustura ari naiz.

«Gaur egun baratzea nire gimnasio bilakatu da, baita psikologo ere; nire elikagairik onena da»



Nolakoa izaten ari da ia hamar urteko ibilbidea elkartean?

Oso pozik ari naiz lanean. Tarteka, gainera, bisitan etortzen naiz Gorregira, eta horrek asko asetzen nau. Ekoizpen aldetik, gorabeheratsua izaten ari da. Lehen bi sailetan ekoizten nituen babarrunak, eta orain bakarrean. 2021ean egin nuen errekor pertsonala. Bi sailetan 640 kilo babarrun bildu nituen. Aldiz, 2022an, sail bakarrean askoz kilo gutxiago bildu nituen.

Zenbat?

118 kilo. Sekulako aldea da. Eguraldiaren arabera asko aldatu izan da ekoizpena.

Eta iaz?

Ez zen urte txarra izan. 180 kilotik gora bildu nituen.

Zer itxura du aurtengo bilketak?

Kantitatez ez da sekulako bilketa izango, baina kalitate aldetik bai. Ekaineko eurite eta luiziek, ordea, eragin handia izan zuten nire lursailetan.

Zerk egiten du berezi Tolosako Babarruna?

Babarruna, oro har, elikagai ezin hobea da, eta gaur egun toki askotan ereiten da. Tolosakoa Gipuzkoako edozein tokitan erein eta hazi daiteke, betiere, kontrolpean. Beltza da, eta erdian puntu zuri bat dauka; lekari lotzen zaion puntua da. Munduan ez dago halako babarrunik; berezkoa du Tolosakoak, eta berezitasun hori mantendu izan du.

Txikitatik al duzu baratzerako zaletasuna?

Bai. Nire amamak baratzea zeukan, eta beti laguntzen nion. Horregatik, asko gustatu izan zait beti, nahiz eta nire ogibideagatik gerora beste bide batzuk hartu ditudan. Grina eta zaletasuna handia direnean, ez dago oztoporik. Gaur egun baratzea nire gimnasio bilakatu da, baita psikologo ere; nire elikagairik onena da.

Zenbat ekoizlek osatzen duzue elkartea?

40 inguru gara, Gipuzkoan zehar banatuta, eta denok eramaten ditugu bildutako babarrun guztiak elkartera. Ekoizle berriak sartzen dira tarteka, baina batzuek utzi ere egiten dute.

Azken urteotan errelebo aldaketaren beharra azpimarratu izan du elkarreak. Oraindik ere beharra daukazue?

Bai. Guretzako oso garrantzitsua da tolosarrek babarrunarekin duten erlazioa ez galtzea, herritarren identitatearen parte delako. Adineko asko ari da lehen sektorean lanean, eta belaunaldi aldaketa beharrezkoa da zenbait tokitan. Gure elkartearen kasuan, tolosarren identitatea mantentzea ere bada helburua. Ondorioz, deialdia egin nahi dugu ekoizle berriak animatu daitezen, batez ere, gazteak. Esperientzia oso polita da. Lursail txiki bat nahikoa da hasteko. Erraza da, eta edozein zalan-tza izanez gero, berehala argituko dugu. Edonork babarrun haziak erein nahi baditu, besoak zabalik hartuko dugu.

HEZUR BERRIAK

Bertso-saio literarioa



Azaroak 21, 18:30
Ibarrako elizan

Bertsotan:
Alaia Martin
Amaia Agirre
Uxue Alberdi

Musikan:
Ines Osinaga

Gai-emaila:
Ane Labaka

EGUZKITZA sagardotegia

Abenduaren 6tik
aurrera zabalik!

ABENDUKO ORDUTEGIA

Bazkariak:
Ostirala, larunbata
eta igandea

Afariak:
Ostirala eta larunbata

**Deitu eta egin
zure erreserba!**

Usabal Auzoa, 25
TOLOSA
Tel.: 943 67 26 13

*Betiko sagarriekin
egindako sagardoa*



**SUSTAPEN ETA ERAIKUNTZA
OBRA BERRIA GIPUZKOAN**

**KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA**

**943 69 02 97
607 445 484**

www.aburuza.com



Lana aurkitzeko bidea

Norbere trebetasunak hobetzen laguntzen du
Hazilan+ programak lana bilatzeko prozesuan



Indartu zure gaitasunak

Ikasketak amaitu berri dituzu, baina ez duzu esperientzia nahikorik langile bila dabilen enpresa baten arreta erakartzeko? Langabezian zaude eta zure ezagutzak eguneratu behar dituzula uste duzu lan-merkatura itzultzeko? Denboraldi batez zaintza-lanetan egon zara, eta orain ez dakizu nola bueltatu lan-mundura?

Unibertsitateko edo erdi- edo goi-mailako titulazioa baduzu, HAZILAN+ programak zure trebetasunak hobetzen lagunduko dizu bilatzen ari zaren lana aurkitzeko. Europar Batasunak diruz % 40 laguntzen du.

Bilakatu enpresek bilatzen duten hautagaian

Lan-merkatua etengabe aldatzen ari da, eta ikasgelan eskuratzen ez diren hainbat gaitasun eskatzen ditu: esperientzia, moldakortasuna... Horren aurrean, HAZILAN+ programak trebetasunak garatzen laguntzen dizu mentoria pertsonalizatuaren bidez. Horrela, komunikatzeko edo arazoak konpontzeko gaitasunak hobetuko dituzu, lan-merkaturan lehiakorra izateko funtzezkoak direnak.

HAZILAN+ Lorpen

Programa honen bitartez, lana zuzenean aurkitzen lagunduko dizugu, zure erabilgarritasunera egokitu daitekeen programa baten bidez.

30 orduko laguntza indibiduala eskainiko dizugu, eta lehenengo momentuan zure beharrak zeintzuk diren aztertuko ditugu. Zurekin adostuko dugu lanketarako ordutegia eta intentsitatea. Mentoria pertsonalizatua bada ere, ondorengo lanketatik abiatuko gara:

- 1.- Zure potentziala ezagutu.
- 2.- Zure ohiturak.
- 3.- Zure metafora mugatzaileak.
- 4.- Nola eraiki zure mandala pertsonala.
- 5.- Zure merkatua mapeatu.
- 6.- Zure inbutu komertziala.
- 7.- Lurreratu zure mandala: ibilbide-orria.
- 8.- Zure historia. Zure pitcha.
- 9.- Curriculum vitae-a eta lan-elkarrizketak.
- 10.- Tolosaldeko eta inguruko enpresak.

Lorpen programa lanpostua berehala lortzeko gaitasun nahikoa erakusteko gai diren pertsonen eta gaur egun langabezian egon eta Tolosaldean edo inguruan bizi diren pertsonen zuzendutako dago.

Gainera, programak ez du soilik zure gaitasunetan arreta jartzen, enpresen benetako beharrekin konektatzen ere laguntzen dizu, enpresak bilatzen ari diren hautagai horretan bihur zaitezten.

Orokortasunetik konkreziara pasako gara, eta zure beharrak ondo identifikatu, zehaztu eta horiek lortzeko pausoak emango ditugu.

Interesa izanez gero,

deitu 943 65 45 01 telefonora edo idatzi lan@tolosaldea.eus helbidera.



Andragorako zerbitzuak, emakumeen ahalduntzerako

Askotariko zerbitzuak eta egitasmoak ditu Andragorak. Arlo juridikoa eta psikologikoa lantzen dituzten aholkularitzak gero eta gehiago erabiltzen dituzte emakumeek. Kistiñe Lujanbio, Ane Iturbe eta Maite Blanco aholkulariek diote beharrezkoak direla Andragora bezalako espazioak.



Ane Iturbe, Maite Blanco eta
Kistiñe Lujanbio, Andragoran. **I.G.L.**

Imanol Garcia Landa

Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxeak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. Horietako bi dira aholkularitza juridikoa eta aholkularitza psikologikoa. Lehenengoan Kistiñe Lujanbio eta Ane Iturbe abokatuak aritzen dira, eta bestean Maite Blanco psikologoa. Aholkularitza psikologikoa emakumeei zuzendutako informazio eta aholkularitza indibiduala da, eta astean behin izaten da, aste batean asteazken arratsaldean, eta hurrengoan ostegun goizean. Sei saio izaten dira pertsona bakoitzarekin. «Horrek mugatu

egiten du ematen den arreta», esan du Blancok. «Ezin da sei saiotan prozesu sakon bat egon. Beraz, gehienetan euste lan bat izaten da, beharra zein den enfokatzeko, korapiloren bat askatzen laguntzea...».

Andragoran badago beste zerbitzu bat, Clara Wolframek dinamizatzen duena: indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumeentzako taldean elkartzeko espazio bat. «Horrek iraunkortasun handiagoa du, ez duelako epe jakin bat», zehaztu du Blancok. «Askotan talde iraunkor horretara bideratzen ditut emakumeak. Nik lehen arreta egin dezaket, lehenengo laguntza eman, baina gero talde horretara bideratzen ditut, hor denbora luzeagorako babesa ematen zaielako». Gehienetan indarkeriaren gaiarekin lotutako arazoak artatzen ditu Blancok, eta tarteka beste gai batzuk ere bai, adibidez, doluari buruzkoak.

Batzuetan bi saioekin zerbitzua bukatutzat ematen da, baina oso gutxitan izaten da hori. «Emakume batzuek lorpen handiak egin izan dituzte sei saioetan, baina egoera oso hauskorra denean, emakumea ez denean sostengatzen, ohiko sei saioez gain beste lau saio gehiago egin daitezke salbuespen moduan». Emakume asko aldundiko zerbitzuen zain daude, eta hori iritsi bitartean, Andragoran sostengua ematen saiatzen dira.

Zerbitzura joaten direnei buruz «emakume izatearekin lotuta daudenak» direla dio Blancok, «bizitzan ari diren horretan guztian emakume izatea zeharkakoa delako». 2024an aholkularitza psikologikoan egon ziren 41 emakumeetatik 30k indarkeria matxista bizi izan dute noizbait. «Honек erakusten du oraindik emakumeen aurkako indarkeria gizartean botere desoreka mantentzeko tresna bat dela. Batzuek gaur egun indarkeria egoerak bizi izan dituzte eta beste batzuek iraganean bizi zituzten; edonola ere, denei eguneroan eragiten die, beraien askatasuna, segurtasuna eta ongizatea mugatzen die». Kontsulta pri-



batua du Blancok, eta Andragorara iristen diren kasuak gogorragoak direla dio. «Badago jendea ezin dena pribatura joan, ezin duelako ordaindu. Hona etortzen diren emakume askok bizitza konplikatua dituzte, egoera oso zaurgarri eta gogorrekina». Batzuek esaten diote Blancori berarekin bakarrik hitz egiten dutela gai horiei buruz.

Tarteka larrialdi egoerak bideratzen dituzte, eta agenda moldatu behar izaten dute kasu horiek artatzeko. Ondorengo kasuetan izan ohi da: etxetik alde egiteko erabakia hartu dutenak, edo epaiketa azkarra izan dutenak eta hurrentze agindua jarri denean. «Egoera berri batean daude bat-batean, eta horri arreta jarri behar zaio». Larrialdi kasu bat etortzen denean, euste emozional bat izaten dela dio: «Behar dute hustea, eta behar dute gertatzen ari denaren irakurketa egitea. Niri askotan tokatzen zait etortzen den emakumea la-saitzea: esaten dute munduko gauzarik okerre-na gertatu zaiela, eta nik esaten diet gertatu dena ez dela modurik egokiena izan, baina hemendik aurrera hobeto egongo direla». Batzuetan ez da

bere erabakia izan egoera aldatzea; baliteke bi-zilagunak deitu izatea, adibidez. «Horrelakoetan tokatzen da haiei prozesuaren irakurketa beste leku batetik egitea. Momentu horietan askatzen laguntzen eta akonpainamendua ematen zaio».

Indarkeria matxista jasan duen norbait trata-tzerakoan, momentuko egoera ikusi behar dela dio Blancok: «Ezberdina da salaketa jarri berri duen pertsona bat edo oraindik etxean bizi dena gizonarekin eta tratu txar psikologikoa jasaten ari dena». Kasuistika amaigabea omen da. «As-kotan biktimek haien burua ahaztuta dute, oso manipulaturik daude. Ahalduntze prozesua egiten saiatzen gara, atentzioa bere barrura bideratzen: nola sentitzen den, nola dagoen, zer behar di-

«Batzuetan erabakiak zailak dira, urteetako dinamikak daudelako atzean, eta kasu kasu joan behar da»

MAITE BLANCO

tuen... Eta horretan laguntzen. Batzuetan erabakiak zailak dira, urteetako dinamikak daudelako, eta kasuan kasu joan behar da».

Gehienetan ez du teoriarik azaltzen, bizipenetatik jotzen du. «Ahalduntzeak suposatzen duena da emakumeak beraiek euren bizitzaren ardura hartzea. Hau da, haiek konturatzea zer egiten duten edo zer ez duten egiten bizitzen ari diren horri aurre egiteko». Emakume askok ez daukate dauden tokitik ateratzeko ahalmenik, eta horretan lagundu behar zaie: «Hain gaizki daude, hain manipulaturuta... Nik esaten diedana ulertu dezaket, baina gero hori nola sentitzen duten... Hainbestekoa da dependentzia emozionala, ez dela erraza askatzea. Dinamika indartsuak izaten dira. Urte pila bateko kontua izan daiteke». Drogamenpekotasun bat bezalakoa da: «Drogatik ezin da inor atera bost-sei saiotan. Botere harremanak daude tarteko, dependentzia emozionala... Asko dago lantzeko».

Xantaia emozional handia jasotzen dutela gaineratu du: «Gizonak askotan leporatzen dio emakumeari bere oldarkortasunaren edo portaeraren errua, eta emakumea, hain dago ahul eta menpeko, bere burua zalantzan jartzen duela, eta bere gain hartzen duela errudun sentimendua». Horregatik ematen dio Blancok garrantzia irakurketa aldatzeari: emakumea mezu hori jasotzen ari da uneoro, eta beste irakurketa bat jaso dezake. «Baina ez da erraza».

Hausnarketa bat egiten du: «Jendeari galdeztzean ea ezagutzen duen indarkeria matxista jasan duen emakumeren bat, askok ezetz esango dute, baina denok ezagutzen dugu norbait, jakitun ez izan arren». Indarkeria ez da soilik etxe barruan jotzea edo garrasiak, mota asko daude. «Oso ezkutuan daudenak izan daitezke, adibidez, jeloskortasuna. Inkesta bat eginez gero, esango genuke ez dugula inor ezagutzen, baina arakatzan hasita, indarkeria uste duguna baino gehiago ematen da». Andragorak aholkularitza psikologoa eskaintzea «sekulakoa» dela dio, eta emaku-

«Inkesta bat eginez gero, esango genuke ez dugula inor ezagutzen, baina indarkeria uste duguna baino gehiago ematen da»

MAITE BLANCO

meak animatu ditu bertara joatera eta gutxienez bertako zerbitzuak ezagutzera. «Batzuetan, datozenerako oso egoera larrian daude, eta hobe izaten da horrenbeste ez itxarotea».

Espazio segurua

Izenak dioen moduan, aholkularitza juridikoan aholkuak ematen dituzte Lujanbiok eta Iturbek. Bi astez behin eskaintzen da aholkularitza juridikoa, asteazken arratsaldetan, eta txandaka aritzen dira Lujanbio eta Iturbe.

Andragora bezalako espazio bat egotea Toloaldean izugarritzko aukera dela esan du Lujanbiok, «eskaintzen diren zerbitzuengatik, babes espazioa delako, segurua, beste inon hitz egiten ez direnak bertan hitz egiten direlako, eta horrek asko esan nahi du». Andragora Tolosan dago, baina eskualdeko beste herrietatik ere emakumeak artatzen dituzte, eta horretan indarra jartzen dutela esan du Iturbek: «Horretarako birtartekariak erabili izan dira; izan ere, herri txikietan horrelako egoera batean dagoen pertsona batengana iristea oraindik eta zailagoa delako. Ahalik eta urrutien iristea helburu nagusia izan da hasieratik».

Egoten diren egunetan lau saio izaten dituzte, eta haiek ere agenda moldatu behar izaten

«[Andragora] babes espazioa da, segurua, beste inon hitz egiten ez direnak bertan hitz egiten direlako, eta horrek asko esan nahi du»

KISTIÑE LUJANBIO

dute larrialdi kasuak artatzeko. Emakumeek erabakiak azkar hartu behar dituztenean izan ohi dira larrialdi kasuak: etxetik atera ala ez, salaketa jarri ala ez, hurrekin baldin badaude indarkeria egoterra horiek nola kudeatu... Hainbat gai jorratzen dituzte zerbitzuan: banantze-eskaerak, dibortzioak, ezkontza-deuseztasunak, babes-neurriak, urrunketa-neurriak, salaketak, bitartekaritza, familia eta lana bateragarri egitea, lan-eskubideak... «Ez dira gai estankoak izaten, nahasketa egoten da», esan du Lujanbiok. «Adibidez, norbait dibortzio batengatik dator, familia haustura bat dago, baina indarkeria ere badago, arazo ekonomikoa ere bai...». Hitz egiterakoan haustura horretatik hitz egiten dutela gaineratu du Iturbek: «Sentimendu edo emozio batek beste batera eramango ditu».

Aholkularitza juridikora denetarikoa emakumeak joaten dira, askotariko maila ekonomikokoak edota jatorritakoak. Andragora nola ezagutu duten galdetzean, erantzuna oso zabala izaten da: batzuek etxea bera ikusi dutelako, beste batzuek gizarte zerbitzuetatik bideratu dituztelako, beste batzuek inguruko jendearen bitartez... «Horrelako zerbitzuen berri eskuorrien bidez eta prentsaren bidez zabalduko dira, baina ahoz ahokoak asko egiten du. Zabaltzen laguntzen duena ondo hartuko dugu», esan du Lujanbiok. Hasiberrian emakume gutxiago joaten ziren, baina gaur egun geroz eta beteagoak daude saioak. «Hasieran etortzen zirenak ahoz aho zerbitzuaren berri izaten zutelako izaten zen, eta batez ere militantzia feministagatik», azaldu du Iturbek. «Gaur egun gero eta profesional gehiagok guregana bideratzen dituzte: gizarte zerbitzuetatik jaso ditugu, Osakidetza ere bai, eta horrek esan nahi du proiektua saretzen ari dela. Horrek indarra ematen dio».

Andragorako zerbitzuetatik ere bideratzen dituzte emakumeak. Aholkularitza juridikotik ikusten badute bertara joan den norbaitek behar emozionalei eusteko beharra duela, azaldu egiten diote zer zerbitzu dauden. «Bi zerbitzuetan




«Gaur egun gero eta profesional gehiagok guregana bideratzen dituzte, eta horrek esan nahi du proiektua saretzen ari dela»

ANE ITURBE

dauden emakume asko ditugu. Bai guk aholkatu diegulako aholkularitza psikologikora joatea, edo Maitek guregana bidali dituelako», zehaztu du Lujanbiok. «Andragora ez da leku estanko bat. Hona etortzen direnak badakite zer zerbitzu dauden, edo horien berri jasotzen dute». Aholkularitza juridikoan ez dago saio kopuru jakin bat, beharren arabera izaten da. «Abokaturen batekin prozesu bat abiatzen dutenean, gero guregana ere bueltatzeko aukera dute horren berri emateko eta nola doan ikusteko».

Familia arloko gaiak dira gehien jorratzen dituz-



Ane Iturbe, Maite Blanco eta Kistiñe Lujanbio, Andragorako harrerari, Libe Muguruza dinamizatzailearekin solasean. **I.G.L.**

«Emakumeak informazioaren jabe izan behar du, hark zer pauso sendo eta seguru eman ahal dituen ikusteko»

KISTIÑE LUJANBIO

tenak: dibortzioak, aurretik dibortziatuak egon baina arazoak dituztenak, likidazioak,... Gehiengutik indarkeria matxistaren bat izaten dela diote: «Agresio sexual asko daude, bikote harremanetan eta ezkontutakoaren artean ere bai. Genero indarkeria ekonomikoa ere asko ikusten da, baita indarkeria bikarioa ere, haurrak daudenean. Lan arloko indarkeria ere bai. Izaten dira kasuak ezkontuta urte asko daramatzatenak eta bizitza guztian indarkeria jaso ondoren, bukatzea erabaki dutenak; etxetik ateratzean, beste kontu bat da nora doazen».

«Guk ez dugu inor epaitzen, ulertzen dugulako emakumeek ahal dutena egiten dutela»

ANE ITURBE

Andragora espazio segurua dela diote, eta zerbitzuetara joaten diren emakumeek ez dute nahi izaten besteek jakitea bertan egon direnik. «Profesionalen aurrean daude, eta guk sekretu profesionalaren bitartez egiten dugu lan», esan du Iturbek. «Ezezaguna izate horrek laguntzen die esan behar dutena esaten, eta guk ez dugu inor epaitzen, ulertzen dugulako emakumeek ahal dutena egiten dutela. Etortzen diren emakume batzuek esaten digute hori edo beste gaizki egin zutela, eta guk esaten diegu ahal zutena egin zutela egoera horretatik ateratzeko».




'Querer' telesailaren zineforumean arlo juridikoari buruz hitz egin dute Iturbek eta Lujanbiok dinamizatuta. **ANDRAGORA**

Zerbitzuen bitartez bidelagun izan nahi dutela diote, eta hasierako aholkularitza horretan emakumeak eroso sentitzea. «Konfiantzazko klima hori sortzea oso garrantzitsua da. Seguru sentitzen dira. Haiek seguru sentitzea, entzunak izatea, gauzak ulertzea... hori da gehien eskertzen dutena». Beraingana joaten den emakumea zer egoeran dagoen erakusten die horrek, eta zer behar dituen momentu horretan. «Askotan bide judizial bat irekitzea urte luzetako bidea dela kontuan hartu behar da».

Prozesu judizialei buruzko informazioa ulertaraztea ez da erraza izaten. «Prozesuak ez dira

errazak, eta emakumeak informazioaren jabe izan behar du, hark zer pauso sendo eta seguru eman ahal dituen ikusteko», azaldu du Lujanbiok. «Hainbat etortzen dira prozesu judizialen inguruko kontrastea egiteko, prozesua hasita dute abokatu batekin, eta ondo doan ikusi nahi dute». Abokatuek «ongi tratatzen ez dituztenak» badirela diote, «izan ofiziozkoak edo pribatuak. Ez badute inongo prestakuntzarik feminismoan, genero indarkerian... emakumeak ez dira entzunak sentitzen. Hori ere gertatzen da».

Prozesu juridikoak aurrera eramateko abokatu bitartez egin behar da, Andragoratik kanpo.



'Querer' telesailako fotogramak. **ATARIA**

Horretarako, aukera desberdinak daude: lehentasunez, doako justiziarako aukera eskaini eta azaltzen zaie, eta bigarrenaz, abokatu partikularra aukeratzeko aukeraz informazioa ematen zaie.

Aholkulariek diote epaitegiko prozedurak, metodologiak eta espazioek ez diotela batere laguntzen salaketa jartzen duen emakumeari. «Laguntzak diziiplina anitzekoa izan behar du, eta denok batera aritu beharko ginateke: psikologoak, abokatuak, gizarte langileak, fiskalak, epaileak... Eta egoera horretatik oso urruti gaude», esan du Lujanbiok. Prozedura oso zurrunda dela nabarmendu dute: «Salaketa modu batera jarri behar da, prozedura legeak markatutakoa da, epeak daude, urruntze aginduak ematen dira baldin eta egoera jakin bat ematen bada.... Epaileek ez dituzte betaurreko moreak jantzita, eta horrek ez du laguntzen».

Andragorak beste hainbat egitasmo antolatzen ditu, eta azkenetako bat izan da *Querer* telesailaren emanaldia eta horri buruzko mahai-inguruak, ikuspuntu psikologikotik zein juridikotik. Lujanbiok eta Iturbek telesaila ikustea gomendatzen dute, «bereziki prozedura judizial bat ikusten delako hasieratik. Epaiketa bera irudikatzen da, eta pertsonaien profilak oso ondo jorratuta daude. Gainera, hainbat indarkeria mota daude islatuta. Iturbek gaineratu duenez, «oso garrantzitsua da gai juridikoak espazio feminista batean lantzea, modu komunitarioan. Hausnarketa espazio batek, bakoitzak duen ekarpenetik abiatuta, eta uste dut oso espazio interesgarria sortzen dela. Emakumeak garen heinean gaiek hainbat alorretatik eragiten digute, eta horietako bat alor juridikoa da». Gai horietaz hitz egiteko espazioak asko eskertzen direla esan du Lujanbiok.

Andragorak egiten duen lana nabarmendu dute. «Gure artean bizi diren, gure bizilagun diren emakume eta familia horiek askotan egoera larriak bizitzen ari dira, eta gu horren lekuko gara. Hemen lan egiten dugu, hemen babesten saiatzen gara, baina kontutan izan behar dugu komunitate

ANDRAGORAKO ZERBITZUAK

AHOLKULARITZAK

- **Aholkularitza juridikoa**, Ane Iturberekin eta Kistiñe Lujanbiorekin. Asteazkenak, bi astetik behin, 16:00-20:00.
- **Aholkularitza psikologikoa**, Maite Blancorekin. Txandaka, aste batean bat, eta hurrengoan bestea: ostegun goizak 10:00-15:00 eta asteazken arratsaldeak 16:00-21:00.

Ikasketak eta prestakuntza ibilbideak

homologatzeko aholkularitza, Bidez Bide Elkartearekin. Hilabeteko lehenengo asteartea, 16:00-20:00.

- **Aholkularitza laborala**, etxeko langile zein enplegatzaileentzat, SOS Arrazakeriarekin. Astelehenetan, bi astetik behin, 16:15-18:30.

ELKARGUNEAK

- **Kafe Tertulia**, jatorri anitzeko emakumeen elkargunea. SOS Arrazakeriak dinamizatuta, asteazkenero, 17:00-19:00.
- **Indarkeria matxista laguntza taldea**. Clara Wolframek dinamizatuta, asteazkenero, 10:00-12:00.
- **Ama Sarea**. Nahia Alkorta dinamizatuta, hilabeteko lehenengo astelehenean, 18:00-20:00.

ANDRAGORA TOLOSALDEKO EMAKUMEEN

ETXEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

Helbidea: Emakumeen Plaza 1. 20400 Tolosa.

Telefona: 943 00 89 67 / 747 49 64 69.

Posta elektronikoa: andragora@andragora.eus.

Webgunea: Andragora.eus.

batean bizi garena». Zentzu horretan, akonpainamendu juridikoaz eta psikologikoaz gain, horrelako egoera bati aurre egiterakoan komunitatea «oso garrantzitsua» dela diote: «Sare bat behar dugu horrelako egoerei aurre egiteko. Gizartean bizi gara, eta emakumeok gizartean artatuak izan behar dugu».



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN DOKTOREA
ETA ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Zebrak, zuriak ala beltzak?

Zientziaren oinarria inguratzen gaituenari buruzko galderak egitea da. Metodo zientifikoa, alegia, zientziaren funtsa den prozedura, agerikoa den lehen pauso batekin hasten da: behatzea eta behatzen denari buruzko galderak egitea. Milaka urtetan zehar, zientzialariak zeruari begira jarri dira, eta bizitzako galdera transzendentalenak egin dizkiote haien buruari. Lur planetatik harago bizitzarik ba al dago? Unibertsoa hedatzen ari al da? Noiz jaitsi behar da komuneko tapa, ponpa tira aurretik edo ondoren? Zebrak zergatik dira marradunak? Eta zer dira, zuriak marra beltzekin edo beltzak marra zuriekin?

Zientziaren bideak ezin asmatuzkoak dira eta galdera guztiei erantzuna ematea, agian, ez da posible. Erlijioa bezala, zientzia ere fedean oinarritzen da. Pedro Miguel Etxeniketik dioen modura, guztia ulertu daitekeela pentsatzeko fedean oinarritzen da zientzia. Hala ere, hori horrela den ere ez dakigu, hau da, agian guztiari azalpen bat ematea ezinezkoa da. Batek daki. Bien bitartean, urtero, irailaren bueltan,

galderarik zoroenak erantzuten ahalegindu diren ikerketak saritzen dituzte Ig Nobel sarietan. 2025. urtean ere, Bostongo Unibertsitatean egindako ekitaldian eman dituzte aurtengo sariak. Lehenik eta behin azaldu behar da sari hauek broma eta adarjotze artean ematen diren arren, zinez serioak diren ikerketak saritzen dituztela. Kontua da, ikerketa horietan planteatutako galderak ez direla, nolabait, zientziaren seriotasunaren kortse estuan sartzen direnak. Errusiar mendietan ibiltzea onuragarria izan al daiteke giltzurrunetako harriak apurtzeko? Mozkortuta dauden saguzarrek ondo egiten al dute hegan? Albo-ondorio kaltegarriak dituzten sendagaiak eraginkorrak izan al daitezke? Basahatearen nekrofilia homosexuala zertan oinarritzen da? Beno, horrelakoak izaten dira saritutako ikerketek aztertzen dituzten esparruak. 2025eko saridunen artean batek nire interesa

«Beraz, ondorioztatu zuten marrak intsektuen kontrako defentsa-mekanismoak direla»



piztu du: zebrak zergatik dira marradunak? Eta lasai, ene irakurle, laster esango dizut-eta zuriak ala beltzak diren, baina hori beste kontu bat da.

Bada, beti pentsatu izan dut zebrak marradunak direla harrapakarietatik ezkutatzeko, baina egia esanda eta ondo pentsatuta, ez nuke esango zebra marradun bat ikustea zaila denik sabanako paisaia marroietan. Tomoki Kojima eta haren lankideek ikerketa-lanak abiatu zituzten eta, horrela, hainba behi marrekin margotu zituzten, zebren gisara. Ondoren, intsektuen ziztada kopurua aztertu zuten behi *marradunetan* eta margotu gabeko behietan. Ikusi zutenez, zebren gisara margotutako behien ziztada kopurua % 50 txikiagoa zen. Beraz, ondorioztatu zuten marrak intsektuen kontrako defentsa-mekanismoak direla. Agian ez horretarako bakarrik, baina intsektuen ziztadak saihestea zebrak marradunak izatearen arrazoi nagusia izan daiteke.

Eta orain bai. Zer dio zientziak zebren kolorea-ri buruz? Bada, hasiera batean badirudi zebrak zuriak direla, baina zientziaren arabera, zebrak beltzak dira eta marra zuriak dituzte. Zebraren ilaje guztia melanozitoak dituzten folikuluetan sortzen da. Zelula horiek animalion azalaren eta ilearen kolorearen erantzuleak dira; izan ere, bertan dauden melanozitoek melanina pigmentua ekoizten dute eta hori da kanpotik ikusten den kolorea. Zebren kasuan, marra zuriak melanina gabeziak sortzen ditu, beraz, ez da haien pigmentu propioa. Zebra bati bizarra moztuko bagenio, animalia beltza dela ikusiko genuke. Honi buruz sakonago idatzi nuen EHUKo Kultura Zientifikoko Katedraren *Zientzia Kaiera* blogean, bertara jo dezakezu argibide gehiago nahi badituzu. Dena den, ezinbestekoa iruditu zait Zientziaren Talaia honetara ere galdera transzendental hauen erantzuna ekartzea.

Bi emakumetik batek indarkeria jasan du Euskadin



Ez da
zure arazoa
soilik,
gurea ere
bada

azaroak
25

Emakumeen
kontrako indarkeria
Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU **24 h**

900 840 111



araba  álava
foru aldundia diputación foral



Asteburuko frankotiratzaile



KOLDO ALDABE
KAZETARIA

Na zismoaren garaiko pertsonaia-rik beldur-garrienetakoa izan zen Amon Göth. Juduen hilketa eta masakre handietan hartu zuen parte SSetako ofizial eta Plaszow kontzentrazio esparruko buru zela; *Krakoviako Harakina*

ezinezez ezaguna egin zen. Göthek egunero hiltzen eta torturatzen zituen Plaszoweko gatibuak modu arbitrarioan. Bere bi zakurrak, *Rolf* eta *Ralf*, trebatuta zeuden presoak hil arte sarraskitzeko. *Schindler's List* filmean gordin erretratatu zuen Steven Spielbergek.

izaki. Atzeritik Sarajevoko setiora asteburu pasa joandakoei ateak ireki zizkien Mladicek, zibilak tirokatzeko. Asteburuko frankotiratzaileek 80.000 eta 100.000 euro artean ordaintzen zuten hildako zibil bakoitzeko; gehiago haurrak baziren; doan zaharrak baziren.

Orduan ere jakina zen horrelako turistak bazebiltzala Bosnian. Orain, ordutik ikertzeari utzi ez dion kazetari bati eta bi juristari esker, Italian giza ehiza horiek nola antolatu ziren jakin dugu. Salaketa jarri dute, eta erantzuleetako batzuk identifikatzeko itxaropenari eusten diote. Abokatueta bat Nicola Brigida da, Argentinako eta Txileko desagertu italiarren kasu judizialeetan parte hartutakoa. Bere esanetan, istorio honek neurri bateraino harritu du soilik: «Heriotzaren hegaldiez arduratu ondoren, gauza hauek ez naute larregi harritzen».

II. Mundu Gerra amaituta, epaitu eta exekutatuta

«Göthen afizio nagusietakoa zen bere bulegoko leihotik gatibuei tiro egitea, frankotiratzaileen gisan. Eta horixe etorri zait gogora, Sarajevoko 'giza safarien' inguruko berriak irakurri ditudanean»

Göthen afizio nagusietakoa zen bere bulegoko leihotik gatibuei tiro egitea, frankotiratzaileen gisan. Eta horixe etorri zait gogora, Sarajevoko «giza safarien» inguruko berriak irakurri ditudanean.

Göth bezain ankerra zen Ratko Mladic. *Bosniako Harakina* ezizena jarri zioten, 1990eko hamarraldian han gertatu ziren genozidioaren eta humanitatearen aurkako krimenen erantzule nagusia

egin zuten Göth. Mladici bizi osorako kartzela zigorra ezarri zioten 2017an. Orain justizia bila dabilta Italian. Izan ere, Italian biziarteko espetxe zigorrarekin zigortzen den delitu oso larria da kasu hau, eta hori horrela izanda ez da inoiz iraungitzen.

Abokatuari gertatzen zaion bezala, harritu jada ez naute harritzen giza aberearen izaera eta portaera hauek. Asaldatzen jarraitzen naute, ordea. Bada zerbait, bizirik nago.




BEÑAT IGUARAN
HARITUZ-EKO KIDEA

Gazteak

Doinua Habanera

San Martinak pasa berri
Oraindik festa usaina
Gazteak lanean gogoz
Okertu gabe ezpaina
Bingoan guztiok adi
Haundia zenez ordaina
Martina sorginarekin
Zer istorio apaina
Pelota, herri kirolak
Nun gozatua nahi aina
Txokolatea gauean
Bihurtu ohi dena kaina
Gazte hauekin ez dago
Sarri entzuten da baina
Gazteei Zer eskertua
Badaukagu alajaina.





AMATASUNAZ GAINEZKA!

Badira etenik gabe eusten duten gorputzak, eta behin eta berriro errepikatzen diren hitzak: «Ama, ama, ama, ama...» nork bere burua galdu arte.

Ama izateak ere gainezka egiten du.

Irudia:

Jennifer
Arevalo Da Silva.

8.

LEHIBERRI EGUNA 2025

Azaroak 28

12:00 / Lehiberri zentroa



EMAN IZENA:
lehiberri@tolosaldea.eus



- ▶ SABIN AZUA –
“ZIURGABETASUN
GARAIA
ESTRATEGIAK
SORTZEN”
- ▶ LEHIBERRI
AITORTZAK
- ▶ NETWORKING
GUNEA



Tolosaldea
garatzen



Mondragon
Unibertsitatea

Goi Eskola
Politeknikoa



GOIERRI CAMPUSA

ORDIZIA

Ingeniaritza
Mekanikoko
Gradua



Azaroak 22, 11:00
Urtarrilak 17, 11:00
Martxoak 11, 11:00

ATE IREKIAK

EMAN IZENA! eman izena!



Tolosaldeko
istorioak gertutasunez
eta egunero

Jarraitu **ataria**ko
Whatsapp eta
Telegram Kanalak



ataria.eus



SU TXIKIAK

Kultura

Jon Miranda

Iraitz Lizarragak eta Izaro Lizarragak 'Hamar marra' izeneko album ilustratua atera dute Txalaparta argitaletxearekin. Emakumeen memoria historikoa berreskuratu nahi izan dute, eta 36ko gerraren testuinguruan Aiztondon emakumeek eta umeek jasan zuten jazarpena kontatu dute.



BARNEBIDEAN



Gizartea

Imanol Garcia Landa

Lurhats taldearen musika folk tribal medizinala. Julen Basterra eta Iban Nikolai kideen bisita izan du ATARIAk. Euren proiektuari eta 'Sendagai' diskoari buruz hitz egin dute.



PERTSONAIA HISTORIKOA

Historia

Joxemi Saizar

Xexili eguna ate joka dagoen honetan, Javier Bello-Portu musikagile eta orkestra zuzendari tolosarraren inguruan hitz egin du 'Pertsonai Historikoa' saioan Joxemi Saizarrek.



AGENDA

OSTIRALA AZAROAK 21

ABALTZISKETA

IPUIN KONTALARIA

17:30. Ameli Ipuin kontaketa musikatua haurrei zuzenduta, Goibegi eraikinean.

19:00. *Ongi etorri!* helduentzako ipuin kontaketa musikatua, Abaltzisketako ostatuan.

ADUNA

ELKARTASUN AFARIA

20:30. Elkartasun afaria Palestinarekin Txulobi elkartearen.
Ondoren. Gazako Sol Band musika taldearekin emanaldia eta solasaldia Elordin.

ALEGIA

BAKARRIZKETA

21:30. *Putaren bakarrikzeta* eroetxean, Laura Penagos. Zinean.

ALEGIAKO GAZTETXEAREN

38. URTEURRENA

21:30-22:00. Izen-ematea.

22:00. Mus txapelketaren hasiera.

AMASA-VILLABONA

OINKARI, 50 URTE DANTZAN

22:00. 50 urte dantzan ikus-kizuna. Oinkariko dantzari eta dantzari ohiek prestaturiko ikus-kizuna, Olaederra kiroldegian.

AMEZKETA

ERAKUSKETA

Amezketako argazkien hirugarren erakusketa. *Talaiaik eta pilotariak*. Fernando Amezketarra kultur etxean.

ANOETA

EMANALDIA

19:00. Kukuak kantuz abesbatzaren emanaldia. Zimiterioan.

BERROBI

BAKARRIZKETA

18:00. Bea Egizabalen *Magma mia* bakarrikzeta.

IBARRA

BERTSO SAIO LITERARIOA

18:30. *Hezur berriak* bertso saio literarioa. Ane Labaka gai-emailearekin, Ines Osinagaren musikarekin eta bertsotan Amaia Agirre, Alaia Martin eta Uxue Alberdi. Elizan.

IKAZTEGIETA

IPUIN KONTAKETA

17:30. Kontalari2ren ipuin kontaketa. 7 urte arteko haurrentzat. Liburutegian.

IHES-GELA

18:00-20:00. Berdintasunaren altxorren bila. 7-12 urte bitartekoei zuzendurik. Udal frontoian.

ANTZERKIA

19:00. *Cromlech* antzezlan. Erabilera anitzeko gelan.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

19:00. *Leizeta gogoratzeko garbiketa lanak*, Lurpea Garbi elkarteak aurkeztuta. Eskolan.

21:00. Kantu afaria, Aitor Atxega eta Imanol Kamiorekin. Ostatuan.

TOLOSA

KONTZERTUA

19:30. Xexili eguneko kontzertua. Xexili egunaren testuinguruan, Tolosako Udal Musika Bandak antolatuta, banda beraren eta gonbidatutako herriko musika taldeen kontzertua izango da. Tolosako Udal Txistulari Banda, Hodeiertz abesbatza, Giro Arte dultzaina taldea eta Tolosako Udal Musika Banda. Leidor antzokian.



GAZTE TOPAGUNEA

Arratsaldean. *Zer dira jarrera sexistak?*

ZIZURKIL

GAZTEZULO

Emakumeen kontrako indarkeria aztertuko dute.





LARUNBATA AZAROAK 22

ADUNA

ARGAZKI RALLYA

10:30. II. Argazki Rally
Lehiaketa. Herriko plazatik.



AMASA-VILLABONA

OINKARI, 50 URTE DANTZAN

10:30. Kalejira herrian zehar, Oinkari dantza eskolaren eskutik.
11:30. Oinkari dantza eskolaren emanaldia, Bearzana frontoian.
14:30. Bazkaria Aburuza sagardotegian.
20:00. Erromeria Errebote plazan, Gozategi taldearekin.
21:30-23:00. Afaria Urrizpe tabernan.
22:00. DJ Fer Urrizpe tabernan.
00:30. DJ Zigor DZ Urrizpe tabernan.

ANOETA

ZINEA

17:00. Haurrentzako zinea. 2 euro. Mikelasagasti auditorioan.

BALIARRAIN

UDAZKEN KULTURALA

Herri bazkaria elkarteak antolatuta eta Andoni Ollokiegiren kontzertua.

BERROBI

TXAPELKETA

Larunbata eta igandea.
Berrobiko XXXIII. Ion Ander Izagirre frontenis txapelketa.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

09:30. Mendi irteera
Hernialdeko Aizkoate kobazulora.
16:30. Mural margotzea
Olivia Sanchezekin.

TOLOSA

BABARRUN FESTA

06:30. Trianguloa.
Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketaren hasiera.
08:30. San Frantzisko. Gure Kaiola elkartearen XXXVIII. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomía.
14:00-09:00. Trianguloa. Azoka berezia.
11:00. Kalez kale. Tolosako Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.
12:00. Kalez kale. Dantza-erromeria ibiltaria trikitilari, dultzainero, udal txistulari banda eta Udaberriko dantzariekin.
12:00. Trianguloa. Babarrun dastaketa. Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eskutik.
12:45. Trianguloa. XXXI. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa.
13:30. San Frantzisko. Lehiaketa Gastronomikoko sari banaketa.
14:30. Tolosako elkarte eta tabernetan babarrun jatea.
20:00. Kalez kale. Jainekin txaranga.
23:00. Plaza Berria. Gozategi.
00:30. Kalez kale. Jainekin txaranga.
XEXILI EGUNA
11:30. Tolosako Udal Musika Bandaren Xexili eguneko kalejira, Gorriti plazatik abiatuta. Honako ibilbidea jarraituko du: Kale nagusia, Zerkausia kalea, Trianguloa plaza, San Frantzisko pasealekua, Lopez-Mendizabal pasealekua, Korreo kalea eta

ERAKUSKETAK



TXOTXONGILO KONTZIENTEA

Lau hamarkadatik gorako ibilbidean zehar, Valentziako Bambalina Teatre Pracicable konpainiak proposamen eszeniko interdiziplinarra garatu du.

Tolosa, Topic.



GELEDE MASKARAK

Gelede tradizioa Ketu eskualdean sortu zen, Beningo Errepublikan, XVIII. mendearen amaieran.

Tolosa, Topic.



ITZULERA EZKUTUAREN ESNATZEA

Juremaren Pelofuegoren erakusketa. 40 artelan inguru biltzen ditu, zeramikaz egindako eskulturak eta olio zein akrilikoki pinturak tartean.

Tolosa, Aranburu jauregia.

Plaza Berria. Tartean geldialdiak egingo dituzte. Udal txistulari banda ere kalez kale ibiliko da eguerditik aurrera.

MANIFESTAZIOA

12:00. LAB eta ELA sindikatuek manifestazioa deitu dute, Tolosaldearentzat ospitale % 100 publikoa eta zerbitzu guztiekin izatea eskatzeko. Gainera, langile guztien subrogazioa bermatzea eskatuko dute. Mobilizazioa Trianguloa plazatik abiatuko da. Trianguloa plazatik.

TITIRIJAI

17:00. *Tinglaur txikia.* Taun Taun teatroa. 45 minutu. Familiei zuzendurik. Euskaraz eta gaztelaniaz. Topic-eko arkupeetan.

18:00. *Ma tache.*

Belgikako O Quel Dommage taldea. 4 urtetik aurrerakoei zuzendurik. 50 minutu. Hitzik gabea. Itzalak. Topic-en.

ERROMERIA

18:00. Babarrunaren Festan erromeria, Ai ama! taldearekin. 3 tabernan.

KONTZERTUA

22:00. Clandestined (Japonia) eta Jasons (Japonia) taldeen kontzertua. 10 euro. Bonberenean.

IGANDEA AZAROAK 23

ALEGIA

GAZTAINA JATEA

18:00. Erretirodunentzat gatzaina jatea. Kultur etxean.

ALTZO

AURKEZPENA

12:00. *Arbasoei gozatzarre.* *Altzoko baserri eta etxeak* liburuaren aurkezpena, manu Olano Jauregirekin. Batzarremuño kulturunean.



AMASA-VILLABONA

HAUR ANTZERKIA

17:00. *Atearen* bestaldean antzezlanea, Hika Teatroarekin. 5 euro. Gurea antzokian.

ADUNA

MENDI IBILALDIA

Adunako mugarrien mendi ibilaldia, Jabier Zabalaaren eskutik. **09:00.** Plazatik abiatu. **12:30.** Plazara bueltatu.

ASTEASU

BERTSO-SAIO LITERARIOA

12:00. *Esne-berriketan* bertso-saio literarioa. Uxue Alberdi eta Amorante. Aner Peritz eta Maider Arregi. Udaletxean.

**Irakurri erreportajea*
30-33 orrietan.

ELDUAIN

BAKARRIZKETA

18:00. Beatriz Egizabalen bakarrizketa: *Gregoria*. Kultur etxean.



IBARRA

IBARRAKO V. MENDI MARTXA

08:00. Ibilbide motza. 17 km.
786 m+. Ibilbide luzea. 38 km.
1606 m+. Plazatik.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

11:00. Artisau eta ekoizle azoka.
16:30. Magia ikuskizuna,
Izeba Felixaren irratia Eneko
Gutierrezekin.
18:00. Talo eta gaztaina jatea.

LIZARTZA

ANTZERKIA

18:30. *Milagros eta Valentina*
antzezlan, herriko gunean.

TOLOSA

FAMILIA TAILERRA

11:00, 11:20 eta 11:40. *Sortu*
zure Topic-a familia-tailerra.
Kaleko tailerra. Euskal Herria
plazako arkupeetan.

TITIRIJAI

17:00. Igandea eta astelehena.
Somion. Kataluniako El que ma
queda de teatre. Familiarra.
50 minutu. Gaztelaniaz. Mahai-
txotxongiloak. Leidorren.

18:00. *Alma*. Kataluniako
LaBú teatro. 3 urtetik
aurrerakoentzat. 40 minutu.
Hitzik gabea. Objektuekin.
Topic-en.

KANTU BAZKARIA

ETA EMANALDIA

Babarrunaren Festaren
luzapena, Edorta Amuruarekin.
Kantu bazkaria eta emanaldia.
3 tabernan.

KONTZERTUA

20:00. Naiz presidente
taldearen kontzertua. 10 euro.
Bonberenean.

ASTELEHENA

AZAROAK 24

ALEGIA

TRAMITEAK

09:00. NAN edo pasaportea
ateratzeko edo berritzeko
aukera. Derrigorrezkoa da
aurrez txanda hartzea. Plazan.

TOLOSA

TITIRIJAI

10:30 eta 12:30. *Alma*.
Kataluniako LaBú teatro.
3 urtetik aurrerakoentzat.
40 minutu. Hitzik gabea.
Objektuekin. Topic-en.
20:00. *Apnea*. Frantziako
Le Poisson Soluble. 6 urtetik
aurrera. 45 minutu. Hitzik
gabea. Paper-txotxongiloak.
Topic-en.

A25

18:00. *Zaintza nork?*
Non? Nola? hizketaldia,
Pili Legarra. Oneka Euskal
Emakume Pentsionisten
Plataformak antolatuta.
Andragoran.

ZIZURKIL

TERTULIA LITERARIOA

17:30. *Detaile xume bat*
liburua aztertuko dute,
Iratxe Retolazarekin.
Plazida Otaño liburutegian.

ZINEMA



BUGONIA

Larunbata eta astelehena
(19:00).

Tolosa, Leidor.



GAUA

Larunbata
(19:30 eta 22:00); igandea
eta astelehena (19:30).

Amasa-Villabona, Gurea.



LA LARGA MARCHA

Larunbata (21:45) eta
igandea (19:00).

Tolosa, Leidor.

ZUZTARRIK GABEKOTZAT JO IZAN DENA ADITZEKO

‘Esne-berriketan’ liburuan oinarritutako bertso-saio literarioa egingo dute igandean Asteasun; Uxue Alberdik pasarteak irakurri eta gaiak jarriko dizkie Aner Peritz eta Maider Arregiri, eta Amorantek girotuko du saioa musikarekin.



AITOR KARASATORRE / FOKU

Jon Miranda

Esne-berriketa esaten zitzaion garrantzia handirik gabeko hizketari, ganora-gabeko jardunari edo txutxumutxuari; alper-kalakari, pisurik edo zuztarrik gabeko jarioari, eta sarrien, emakumeen arteko solasari. Uxue Alberdi Estibaritzi (Elgoibar, 1984) polita iruditu zaio kontzeptua berresanahitzea eta arreta jartzea ustez esateko ezer garrantzitsua ez daukan horri. Asmo horren emaitza da aste honetan aurkeztu duen *Esne-berriketan* (Elkar, 2025) liburua eta kontakizun-bilduma horretan oinarritutako bertso-saio literarioa.

Asteasun, igandean, 12:00etan udaletxeko ikus-entzunezko gelan emango dute saioa; Alberdi arituko da liburuko testuak irakurtzen eta haiek doinueta bilduko ditu Iban Urizar Amorantek. Irakurriko diren istorio horietan oinarrituta gaiak jarriko dizkie idazleak Aner Peritz eta Maider Arregi bertsolariei.

Aurretik elgoibartarrak berak *Dendaostekoak* liburuaren inguruko bertso-saio literarioak antolatatu izan ditu, eta modu bertsuan aritu izan dira Miren Amuriza (*Pleibak*), Nerea Ibarzabal (*Bar Gloria*) edota Ane Labaka ere (*Hezur berriak*), euren liburuak aurkezten. «Asko ematen digun formatu bat da, bai bertsolari modura, bai idazle modura ere. Liburuak jendeari gerturatzeko modu bat da. Ematen digu bertsoan egiteko beste abiapuntu bat, gaiak modu jakin batera kokatzen dira, atmosfera bat sortzen da», dio Alberdik.

Igandean *Esne-berriketan* liburua hartuko dute oinarri eta, hortaz, bertsolariei bizipenak biltzen dituzten ahozko istorioek emango diete bertso-tarako aitzakia. «Saiatuko naiz giro guztietako kontakizunak eramaten saiora eta tokian tokira egokitzen. Agian Asteasu bertakoa ez, baina inguruari oihartzun egin diezaieketen istorioak sartuko ditut emanaldian».

Ipuin kontaketa eta inprobisazioaren arteko ordu eta erdi inguruko saioa izango da. As-

ESNE BERRIKETAN

Bertso-saio literarioa



**UXUE ALBERDI
AMORANTE**

Azaroaren 23an, igandea,
Asteasuko udaletxean, 12:00etan

**ANER PERITZ
MAIDER ARREGI**



teasun emango dute estreinakoz, baina, gero, bertso-saio literarioak ibilbidea egingo du herriz herri —hilaren 24an Zumaian, 28an Ondarroan eta 30ean Zaldibian—. Gaiak eta bertsolariak aldatzen joango dira, istorio batzuk mantenduko dira eta beste batzuk aldatu. «Oinarri baten gainean etengabe berritzen den emanaldia izango da, bata bestearekiko diferentea».

Entzute-ariketa aktiboa

Oinarria, hortaz, liburuan biltzen diren 77 istorioek osatzen dute. Alberdi azkeneko bi urteetan hainbat herritan ibili da emakumeekin elkartzen, giro goxoan, besteak beste, Larrabetzun, Muxikan, Ondarroan, Getarian, Zarautzen, Orion, Hondarribian, Errezilen eta baita Bidanian ere. «Nire

helburua ez zen hainbeste etnografikoa, baizik eta gaur egun bizirik dauden pertsonen emakumeak protagonista dituzten eta memorian gordetzen dituzten istorio esanguratsu eta onak jasotzea».

Batzuetan lehenengo pertsonen kontatutako istorioak dira, eta beste batzuetan senitartekoren bati buruzkoak, edo herriko edo jaioterriko norbaiti buruzkoak. Izenetako batzuk aldatuta ageri dira istorioetan eta kontalarien zerrendan pertsona horien identitatea babesteko. «Badaude istorio mota batzuk denbora-pasa eta anekdotara murriztutakoan bakarrik onartzen direnak. Emakume hauek kontatzen den hori gertatzen ari zela ahoa zabaldu izan balute, segur aski, zigor handia jasoko zuketena. Haietako askok, oraindik ere, nik uste beldurra sentitzen dutela, eta nahiago dutela goitizenen atzean ezkutatu».

Badu aurrekari bat *Esne-berriketan* liburuak: Alberdik berak idatzitako Belarriko kilkerra (Elkar, 2023). Oraingo hau idazteko Eusko Jaurlaritzaren beka baten laguntza jaso du Alberdik: «Beste modu batera egindakoa da hau, gehiago mimatu ahal izan dut eta nahi adina denbora hartu. *Belarriko kilkerra* oso azkar egin nuen, jolas modura, proba bezala». Idazleak uste du iritsi nahi zuen tokira iristeko bidea zabaldu ziola aurreko liburuak.

Aste honetan aurkeztu duen liburuak badu beste gorputz bat. Alberdik dio *Belarriko kilkerra* idatzi zuenean jabetu zela istorioetako asko gizonek gizonei buruzkoak kontatukoak zirela, batez ere tonu jakin batekoak: «Gaiztakeriak, gauza traketak agertzen zirenean protagonistak beti gizonezkoak ziren. Konturatu nintzen emakumeei buruzko kera horretako istorioak jaso nahi banituen ahalegin estra bat egin beharko nuela eta haien bila jo. Entzute-ariketa horretan segi nahi nuen, baina gure genealogia horretatik gehiago erreskatatzeko. Helburua izan da urrats bat atzera egin eta esatea 'hemendik gatzoz'. Liburu honek badu beste taxu bat aurrekoaren aldean, istorio guztiak emakumezkoenak izaterakoan, beste zerbait esaten du; dikanan gehiago jotzen du».

«Istorio guztiak emakumezkoenak izaterakoan, liburuak beste zerbait esaten du; dikanan gehiago jotzen du»

«Inportantea iruditzen zait era askotako tratuak izan direla azpimarratzea eta bizimoduari aurre egiteko modu asko»

«Saiatu naiz idatzian ahozkoaren grazia hori ahalik eta gehien mantentzen (...) istorioak egon zitezela zipriztinduta tokian-tokiko esateko moduekin»

«[Durruty ilustratzaileak] Lotu ditu istorio guztiak eta beste esanahi geruza batzuk sortu ditu marrazkiekin»

UXUE ALBERDI

Zortzi ataletan banatuta

Istorio laburrak dira, beraz, ahozkoaren grazia mantentzen dutenak eta autorearen ustetan, jendearekin batera idatzitakoak. «Gauza bat da hitzek esaten dutena eta beste bat pertsona hori zer ari zaizun kontatzen, nondik, zein gorputzetatik». 57 kontalari diferentek kontatutakoak dira istorioak.

Denetariko kontakizunak daude: hunkigarriak, gogorak, bitxiak, harrigarriak... Zortzi ataletan antolatu ditu Alberdik, eta horietako bakoitzean askotariko istorioak dauden arren, kapitulu bakoitzak badu atze-oihal moduko bat. Laugarren atala da, esate baterako, gogorrenetakoa eta ilunenetakoa: biolentzia mota diferentek kontatzen dira, etxe barrukoak, kalekoak zein psikiatrikokoak. Badago beste atal bat heriotzak zeharkatzen duena: «Garingo Pla-



zidaren istorioa jaso dut, adibidez; 111 urterekin hil zen sinistuta Jainkoa berekin ahaztu zela. Izugarritzko sufrimendua eragiten zion horrek, uste baitzuen hazitarako utzia zegoela, denak sailean-sailean hiltzen ikusi eta bera hiltzen ez».

Badaude kontakizun argitsuagoak eta egunerokotasunarekin zerikusia dutenak, eta aldi berean, asko esaten dutenak. «Iruditzen zaigu askotan garai bakoitzean modu batera edo bestera harremandu izan garela, baina inportantea iruditzen zait era askotako tratua izan direla azpimarratzea eta bizimoduari aurre egiteko modu asko. Horren bila jardun dut. Emakumeekin bildu izan nintzenean galdetzen nien nola gogoratzen zituzten erditzeak, abortuak edo akorduan ote zuten heriotzari buruzko zerbait berezia; andre gaiztorik edo ausartik ezagutu ote zuten».

Grabagailuarekin eta koadernoarekin gerturatzzen zen Alberdi hitzorduetara. Esanguratsuak iruditzen zitzaizkion istorioak azaltzen zirenean minutuak apuntatu eta etxera joandakoan idatziz ematen zituen pasarteak. «Saiatu naiz idatzian ahozkoaren grazia hori ahalik eta gehien mantentzen. Euskara batuan idatzitako istorioak izan arren, egon zitezela zipriztinduta tokian-tokiko esateko moduekin, esan-postura horiekin, euskalkien musikalitatearekin».

*Esne-berriket*an osatzeko ezinbestekoa izan da Begoña Durruty ilustratzailearen ekarpena, istorio paraleloak kontatu baititu marrazkiekin. «Lotu ditu istorio guztiak eta beste esanahi-geruza batzuk sortu ditu marrazkiekin. Ni asko dauden tokian, lortu du gu baten sentsazioa transmititzea». Alberdik marrazki «bizi eta fresko» bezala izendatu ditu Durrutyrenak.

Bizitzaren inguruko liburu bat bezala definitu du autoreak, fokua, bereziki, emakumeengan jartzen duena. Horrela dio hitzaurrean: «Orriotan badira andre banderak, haizetara fra-fra jartzekoak; eta badira, andre pañeluak, etxekoak, barrurakoak, beren burua ondo plegatzen dakitena. Badira kuleroak labean lehortzen dituzten andre señoak eta zuhaitzak aizkoraz botatzen dituzten andre mandoak; bost urteko artzainak eta atso kontrabandistak; abantekoak eta izuak, esanekoak eta etxekalteak, debilak eta fuerteak, txatxalak eta txorrotzak, zargastak eta zikin-zalamandranak, emakaitzak, andrekoiak, antzuak, lokak. Fosforozko eta merkurioko andreak».

Asteasuko emanaldian emakume horiekin guztiekin egingo du topo Asteasura joaten denak. Memoria, transmisioa, hizkuntza, berben poza gustatzen zaion edonorentzat aproposa izan daitekeela uste du idazle elgoibartarrak. Hain bertsozalea ez den jendeak eta literatura maite duenak, edo alderantziz, bertsozalea izan eta hainbeste irakurtzen ez duenak esne-berriketari aritzeko parada izango du udaletxeko ikus-entzunezko aretoan, igandean, 12:00etan.

EGURALDIA



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

OSTIRALA Negu giro betearekin hasiko da eguna; zaparradak nagusituko dira eta elurra maila baxuetan agertuko da. Egunsentian eta goizeko lehen orduan 300 metroan agertuko da, uneren batean beherago egitea baztertu gabe. Ondoren, goizean eta arratsaldean gora egingo du, 800 metroan kokatu arte. Arratsaldean zaparradek jarraipena izango dute, eta gau aldera gutxiago botako du. Ipar-haizea nagusituko da. Tenperaturak behera egingo du, eta nekez gaindituko dira 3-6 graduak.

LARUNBATA Goizean hodei batzuk agertuko dira zeruan, baina tantaren bat salbu, giro ateri eta lasaia nagusituko da. Eguerdian eta arratsaldeko lehen orduetan hodeiak eta ostarteak eta giro atsegina nagusituko dira, baina arratsalde erditik aurrera mendebaldetik barrena hodeiak ugarituko dira. Gauean fronte bat iritsiko da eta euritara joko du, eta zaparrada ederrak utziko ditu. Hego-haizea nagusituko da. Tenperaturak gora egingo du, eta gehienez 7-10 gradu harra-patuko ditu.

IGANDEA Goizaldean aurreko eguneko frontearen hondarrak izango dira, eta tarteka zaparrada ahulen bat izango da. Hala ere, goizean atertzera egingo du, eta eguerdi ingurua lasaia izango da. Arratsaldean ordea, pixkanaka beste fronte bat gerturatuko da eta arratsalde erditik aurrera euritara joko du, eta gauean euri dezente botako du. Hego/hego-mendebaldeko haizeak joko du. Tenperaturak nabarmen gora egingo du, eta 13-15 gradutan errendituko dira.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu
943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi
ataria@ataria.eus helbidera edo pasa Atariako
bulegotik: **San Esteban 20 behea · Tolosa**

FARMAZIAK

AZAROAK 21, OSTIRALA

IBARRA.

Egunekoa.

Leyre Lejeune.

Euskal Herria 24.

943 67 32 74.

AZAROAK 22, LARUNBATA

TOLOSA.

Egunekoa.

Iñaki Olarreaga.

Korreo 2.

943 67 01 28.

AZAROAK 23, IGANDEA

TOLOSA.

Egunekoa.

Oskar Etxebeste.

Gernikako Arbola 3.

943 65 10 40.

AZAROAK 24, ASTELEHENA

TOLOSA.

Egunekoa.

Eduarne Bengoetxea.

Kale Nagusia 7.

943 67 06 48.

EGUNERO **GAUEKO**

GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA.

Eduarne Bengoetxea.

Kale Nagusia 7.

943 67 06 48.

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez
943 65 56 95 · ataria@ataria.eus · San Esteban 20 · TOLOSA

ZORION AGURRAK

atariaK KUDEATZAILEA BEHAR DU

FUNTZIO NAGUSIAK

- Proiektuaren jarraipen ekonomikoa egitea eta bideragarritasuna ziurtatzea.
- Plangintzak garatzea, helburuak finkatzea eta exekuzioa koordinatzea.
- Lantaldea koordinatzea eta antolatzea.
- Kanpo harremanak egitea eta mantentzea.

Interesa baldin baduzu,
bidali curriculuma tkt@ataria.eus
posta elektronikora
2025eko azaroaren 30a baino lehen.

ESKATZEN DA

- Kudeaketa, administrazio edo ekonomia arloko ikasketak eta ezagutzak izatea.
- Kudeaketa lanetan esperientzia izatea kontuan hartuko da.
- Bestelako ikasketa eta esperientziak baloratuko dira: marketina, komunikazioa...
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako, antolaketarako eta lidergorako gaitasuna izatea.
- Tolosaldean bizitzea edo eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara: gutxienez C1 maila.

ESKAITZEN DA

- Amatasun-baja bat ordezkatzeko aldi baterako kontratua.
- Lanaldi osorako kontratua.
- Abenduan lanean hastea.
- Lantokia Tolosan.



saridunak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu



Inveready Gipuzkoa

VS

HLA Alicante
partida

- Ana Goikoetxea (Ibarra)

Abenduak 5, ostirala · 20:30
Donostiako Amenabar Arena

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Arineketan
antzerkia

Abenduak 12
ostirala · 20:00
Tolosako
Leidor antzokia



- Aitor Olazabal (Tolosa)

Saria eskuratzeko **ataria** jarriko da zuekin harremanetan

hilberriak · urteurrenak · eskertzak

Txikia: 130 € · Atarikideentzat: 65 €
Handia: 180 € · Atarikideentzat: 90 €
Eskertza: 80 € · Atarikideentzat: 40 €

Eskelak · ataria@ataria.eus · 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30 hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

atarikideen ABANTAILAK

EHUN FISIOTERAPIA

% 10eko
deskontua



OREAKO OSTATUA

% 10eko deskontua
dendako produktuetan



GARAZI LORADENDA

30 €-ko erosketagatik
oparitxo bat



SOLUMOBEL

3.000€-ko
erosketagatik
100 €-ko deskontua



ZAP! BIDEOGINTZA

% 10eko
deskontua



MUGAR

% 10eko
deskontua




GARAI NUTRIZIOA ETA ERRENDIMENDUA

% 10eko deskontua



GIHAR FISIOTERAPIA

% 10eko
deskontua



BABEL LIBURUDENDA

30 €-ko erosketagatik
% 5eko deskontua
liburuetan eta % 10eko
deskontua papergintzan



SENA MASAJE ZENTROA

% 10eko
deskontua




MULTIOPTICAS TOLOSA

% 15eko
deskontua



MAIAL ESTETIKA ZENTROA

15 €-ko deskontua
presoterapia bonoan



ARRIARAN GASOLINDEGIA

% 1eko deskontua
beste deskontuez gain



ataria
Ataria.eus 107.6 fm

HARPIDETZA SAILA
943-30 43 46
atarikide@ataria.eus

Informazio
guztia:



ataria.eus/kideak